

Bankuak 2021ean lortutako irabazi garbi osoaren % 60 da

Kutxabankek 129,9 milioi euro bideratu dizkie banku-fundazio akziodunei

- **Gainera, 2019ko emaitzen gaineko 42 milioiko ezohiko dibidendua ordaindu zien otsailean**

2022ko apirilaren 27an. Kutxabankeko Akziodunen Batzar Nagusiak, gaur goizean egin duen ohiko bilkuran, 2021ean lortutako irabazi garbiaren %60 akziodun dituen banku-fundazioetara bideratzea erabaki du, guztira **129,9 milioi** euro.

2020az geroztik, eta kaudimenean eta kapitalean duen egoera sendoari esker, Kutxabankek **finantza-sistemako ordainsari-portzentajerik handiena** banatzen die BBK, Kutxa eta Vital Fundazioei.

Kutxabankek 2022ko otsailean **42 milioiko** ezohiko dibidendua ordaindu zuen 2019ko emaitzen gainera, Europako Banku Zentralak irabaziak banatzeko ezarri zituen murrizketengatik ezin izan baitziren aurrez banatu. Honela, urte hasi denetik Taldeak bere akziodunen artean banatu duen dibidendua **171 milioitik gorakoa** izan da.

Duela 10 urte Bankua sortu zenetik, Kutxabankek **1.090 milioiko** ekarpena egin die akziodun dituen banku-fundazioei, dagozkien proiektu sozialak garatzeko.

Kutxabankek 216,5 milioi euroko irabazi garbi bateratua lortu zuen 2021ean, eta banku-sarrera errepikakorrak handitzea lortu zuen, baita zerbitzuek, balantzetik kanpoko baliabideek eta aseguruiek sortutako sarrerak ere. Arriskuei lotutako aldagaiak hobetu dira, eta bezero fidel eta digitalen kopurua handitu. Horrez gain, etengabeko hobekuntzak izan ditu gobernantzan, eta berankortasun, errentagarritasun edo eraginkortasun ratioetan.